



Hainbat jardunbide egoki hezkuntza-etaparen arabera:

- **Haur Hezkuntzan**

- **Kontzientzia fonologikoaren irakaskuntza.** Irakurtzen ikasteko, zenbait trebetasun eskuratu behar dira; haien artean, nabarmentzekoak dira mintzamenarekin lotutako trebetasunak, letren kontzientzia hartzea... Bada, adimen fonologikoa irakasteak, frogatuta dagoenez, Haur eta Lehen Hezkuntzako haur guzti-guztien irakurketaren errendimendua hobetzen du, bai aurrerapen normala dutenena, bai eta –hobekuntza askoz nabarmenagoa da kasu hauetan– irakurtzeko zailtasun espezifikoak izateko arriskuan dauden ikasleena eta irakurtzeko zailtasun espezifikoak dituztenena ere.
- Ikasgela apaintzea errotulu (idatzi)ak erabilia: haurren izenak, egutegia, txokoen izenak, eguraldia...
- Hizkuntzarekin lotutako zenbait jolas erabiltzea: asmakizunak, *ikusi-makusi*, letra jakin batez hasten diren hitzak esateko jolasak...
- Hainbat motatako testuak erabiltzea: ipuinak, aldizkariak, liburuak, kartelak, egunkariak...
- Batetik irudiak nola interpretatu, eta bestetik adierazpide grafikoen (marrazkiak, zenbakiak, hizkuntza idatzia...) arteko desberdintasunak lantzea, betiere agerian utzita zein diren irudien eta testuen arteko harremanak esanahiaren aldetik.

- **Lehen Hezkuntzako lehen zikloan:**

- **Irakurketaren fonetikaren irakaskuntza.** Hizkuntza idatzizko letren (grafemen) eta ahozko hizkuntzako soinuen (fonemen) arteko harremana esplizituki eta

sistematikoki identifikatzen ikasiko du ikasleak irakurketa fonetikoaren bitartez.

- **Ulermena lantzea.** Ikasleen esperientziatik hurbil dauden eguneroko testuak (gonbidapenak, oharrak, albisteak, liburuxkak, eskola-liburua... ikasleentzat moldatuak) baliatu behar dira, hainbat estrategia erabiliz:
 - ikasleek aurrez dakitena aktibatuz
 - testua osatzen duten irudiak interpretatuz
 - oinarrizko lexikoa eta hitzak landuz
 - ikasleei ozenki irakurraraziz (irakasle batzuek irakurri, eta ikasleek irakurtzeko modu hori hartu behar dute eredu)
 - irakurri bitartean sortzen diren ulermen-arazoak identifikatuz
 - ikasleek programa informatikoak erabiliz
 - talde malguak edo talde interaktiboak osatuz
 - heldu batek baino gehiagok parte hartuz ikasgela bakoitzean...
- Lehen Hezkuntzako bigarren eta hirugarren zikloetan:
 - **Arintasuna eta ulermena landu behar da.** Testuak ulertzea funtsezko helburua da, eta horrexetarako lantzen ditugu gainerakoak (adimen fonologikoa, hitzei antzematea, arintasuna eta lexikoa).
 - Estrategia hauek erabili litezke:
 - testua irakurri bitartean norik bere ulermena kontrolatzeko estrategiak irakatsi behar dira
 - elkarlanean ikastea
 - antolatzaile semantikoak eta grafikoak (antolatzeko mapak) erabiltzea
 - irakasleak galderak egitea ikasleek ulertu ote duten egiaztatzeko, ikasleek erantzutea, eta,

segituan, irakasleak oharrak egitea edo argibideak ematea

- norik bere galderak egitea (testuari buruzkoak)
- eskemak erabiltzea hainbat motatako testuen egiturari antzemateko
- testuen laburpenak egitea.